

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Abendua / 283 Zenbakia



CVIII ENCUESTRO BM30 TOPAKETA

Emakunderen Berdintasun Foroaren esparruan, Bilbao Metropoli-30 Elkartearen CVIII. Topaketa egin da, eta Izaskun Landaida Emakunderen zuzendaria ere bertaratu da. "Emakumeen ekintzailtza sustatze-

ko jardunbide egokiak" aurkezpen-eztabaida da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Enpresak Sustatzeko Zerbitzuaren buru Eva Armestok zuzenduta.

CVIII. BM30 Topaketa azaroaren 17an egin zen, Emakunderen Berdintasun Foroaren esparruan, eta Izaskun Landaidak, Emakunderen zuzendariak, parte hartu zuen.

CVIII. BM30 Topaketa (BEAZ)

Emakunderen Berdintasun Foroaren esparruan, azaroaren 17an “Emakumeen ekintzailtza sustatzeko jardunbide egokiak” aurkezpen-eztabaida egin zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Enpresak Sustatzeko Zerbitzuaren buru Eva Armestok zuzenduta.

ANDREkintzailea programaren esparruan ekintzailtza sustatzeko Bizkaiko eragileek egindako baterako lanean oinarritzen da azterketa.

Bucaramangako (Kolonbia) ordezkaritza

Bilboko Udalak (Bilbao International) proposatuta, Elkarteak Bucaramangako metropolialdeko alkateen ordezkaritza bati egin zion harrera; alkate horiek UN-Habitat programaren barruan bisitatu zuen Bilbao.

Oro har, haien interesa eraldaketaren alderdiak eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ezagutzea da, eta, zehazki, metropolialdearen gobernantzarekin eta finantziazioarekin lotutako gaiak ezagutzea (aliantza publiko-pribatuak, udalerrien ekarpena, projectfinancia, gobernu nazionalaren ekarpena),

baita garraioekin eta zerbitzu publikoekin lotutakoak ere. Bucaramangako metropolialdea plan estrategiko bat ezartzen ari da; hortaz, oso garrantzitsua izango litzateke planeamenduaren elementuak berrikustea, baita planeamendu horren emaitza metropolialdeko udalerrietako politika publikoa izateko nola egiten duten aztertzea ere.

Halaber, Asier Abaunzak, Bilboko Udaleko Hiri Plangintzako zinegotziak, harrera egin zion ordezkari-tzari azaroaren 23an.



Berdintasunari buruzko lan-jardunaldia (Euskadiko Artxibo Historikoa)

Azaroaren 22an, “Parte hartzen al dute emakumeek irabazi asmorik gabeko erakundeen erabaki-organoetan?” jardunaldia egin zen Euskadiko Artxibo Historikoan, eta Bilbao Metropoli-30 Elkarteak ere parte hartu zuen.

Jardunaldia Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregis-

troetako Zuzendaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak antolatu zuen, eta lau txosten eta eztabaidarako mahai-inguru bat izan zituen. Txosten horien artean, Sailaren ordezkariak sektoreko erakundeei buruz egindako azterketa aurkeztuko dute; azterketa urteko kontuak aurkezterakoan emandako dokumentazioaren bidez egin da.



Hego Moraviako ordezkari (Txekiar Errepublika)

Hego Moravia Txekiako eskualde historikoko ordezkari batek, Bohumil Simek gobernadorea eta Brno hiriburuko alkatea, Petr Vokrál, buru dituela, Bilbao bisitatu du maila instituzional gorenean, eta Bilboko Alkateak egin dio harrera. Alkateari, beste aukera batzuen artean, proposatu zion Brnoko eta Bilboko erakundearen arteko egungo harremanak hedatzea lurralde-mailan, arlo hauetan: kulturaren, turismoan, hiri adimendunetan, ikerkuntzan eta berrikuntzan, eta kutsatutako eremuen biziberritze-

an. Horretarako, Bizkaiko hiriburuaren hiri-garapen iraunkorreko egungo estrategia hartuko litzateke erreferentziatzat. Beste batzuen artean, Bilbao Metropoli-30 Elkarteak egin zion harrera ordezkariari, Elkartearen eginkizunak eta jarduerak ezagutarazteko helburuarekin.

Brno eta Bilbo aktiboki parte hartzen dute Eurocities sarean. Sare hori 1986an sortu zen, udal-administrazioen lana indartzeko herritarren egunerokotasunari eragiten dieten erkidegoko politikak inplementatzeko. Egun, Europar Batasun osoko 135 hiri nagusietako 130 milioi pertsona ordezkatzeko ditu. Testuinguru horretan, bi hiriek hartu zuten parte urriaren hasieran Budapest (Hungaria), 'Empowering Smart Solutions for Better Cities' foroan. Foroa SCISek (UE Smart Cities Information System) antolatu zuen, eta bi hiriek etorkizuneko hiri adimendunaren garapenari buruzko ikuspuntuak azaldu zituzten.



Bilbao Metropoli-30 Elkarteak Bilbao metropolitarraren eraldaketa-prozesua zuzenean ezagutu nahi duten ordezkariak eta pertsonaldek hartzeko lana egiten jarraitzen du.

Eusko Jaurlaritzak Bilbao Metropoli-30 Elkartearen zuzendari nagusia gonbidatu zuen ORU Fogar erakundearen batzar orokorrera, Gasteizko Europa Jauregian egin zena azaroaren 27an eta 28an.

Eskualdeen Munduko Foroa (Gasteiz)

Eusko Jaurlaritzak Bilbao Metropoli-30 Elkartearen zuzendari nagusia gonbidatu zuen ORU Fogar erakundearen batzar orokorrera, Gasteizko Europa Jauregian egin zena azaroaren 27an eta 28an.

ORU Fogar bost kontinenteetako bitarteko gobernuak biltzen dituen nazioarteko erakundea da. Hala-ber, ordezkari gisa aritzen da nazioarteko instantzien aurrean, garapen orekatuko eta lurralde-koehesioko politika globala sustatzeko.

Batzar horren berezitasuna da ORU Fogar erakundearen sorreraren 10. urtemuga ospatu dela. Aukera ona izan da egindako ibilbidea berraztertzeke, gure mugimenduari bultzada berria emateke, indarrak berriz biltzeko, gogoia biltzeko eta gure diskurtsoa egoera berrietara egokitzeke.

Urtemuga horren ospakizunaren esparruan, gure kideen eta Nazio Batuen agentzien (NBE Habitat, FAO, UNDP eta LANE) laguntzare-

kin, ORU Fogar erakundearen lantaldeak bilduko dira eskualdeen egungo erronka nagusiei erantzuna emateke; besteak beste, hauexek dira erronka horiek: klima-aldaketa, garapen iraunkorra, elikadura-segurtasuna, kultura-aniztasuna errespetatzea eta enplegua sortzea. Horrekin batera, Garapen Iraunkorreko Helburuekiko eta 2030 Agendarekiko konpromisoak betetzea izango da jomuga.

Azken finean, ORU Fogar erakundearen batzarra leku onena izango da eskualde-mailako jardunbideak eta esperientziak partekatzeko eta gobernu azpiestatalen ahotsa biderkatzeko.

[BasquePRO Elkargoak erakundearen networkinga \(Abokatuen Bazkun Ohoretsua\)](#)

BasquePRO Elkargoak erakundearen jardueren barruan, ekintzailatza babesteko elkargoen plataforma batean lan egitea erabaki dute elkargo profesionalek, elkargo-ehundurak plazaratutako behar bati erantzuna emateke.



BasquePro

ELKARGOAK

Horren harira, BasquePRO Elkargoak erakundeko elkargo profesionalek galdetegia osatu dute, eta elkargokideen artean zabaldu dute, ekintzaileak izan diren pertsonen edo euren ibilbideko uneren batean ekintzailtza garapen profesionaleko aukeratzat hartu duten pertsonen profila ezagutu ahal izateko. Galdetegi horretan eskuratutako emaitzek BasquePRO Elkargoak erakundeak era partekatuan garatu nahi dituen jarduera batzuetarako oinarriak finkatu dituzte.

Jarduera horietako bat azaroaren 30ean Bizkaia Jaurerriko Abokatu Bazkun Ohoretsuaren egoitzan egingo den networking ekitaldia da, hain zuzen.



IKERFEL azterketaren emaitzen aurkezpena

Bilbao Metropoli-30 Elkarteak Ikerfel Euskalduna Jauregirako egindako azterketa baten aurkezpena joan zen. Bilbao Metropoli-30 Elkarteak azterketa horretan lagundu zuen, zuzendari nagusiari egindako elkarrizketetan parte hartuta.

BBAG - Industria turistikoaren sustapena

Bilbao Metropoli-30 Elkartearen zuzendari nagusia BBAG – Industria turistikoaren sustapenaren lantaldearen bilerara bertaratu zen, BEAZen egin zena abenduaren 1ean. Beste batzuen artean, gai hauei buruz aritu ziren: formulazio estrategikoaren berrikuspina eta 2018rako jarduketaren plangintza.

BasquePRO Elkargoak erakundearen jardueren barruan, ekintzailtza babesteko elkargoek networking ekitaldi bat prestatu dute, Bizkaia Jaurerriko Abokatu Bazkun Ohoretsuaren egoitzan egingo dena.

Elkarteak ANDRE-kintzailea programaren eta profesionaltasunerako trebetasunen programaren koordinazio-lanetan jarraitzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eta bizkaia:talent-ek zuzentzen dituztenak, hurrenez hurren.

BBAG Globala

Elkarteari Bizkaiko Foru Aldundiak egiten duen ohiko batzarrera deitu diote, abenduaren 20an egingo dena, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean. Horretan, honako hauek aurkeztuko dituzte: BBAGren 2017ko lantaldeen emaitza, eskualdeen eta udalerrien lurralde-kudeaketaren 2017ko planaren emaitza, 2020rako turismoaren plan estrategikoaren jarduketan bilakaera eta Bilbao Bizkaia turismoaren marketin-plana.



DEIA 40 urte jardunaldia

DEIAren 40. urteurrenaren ekitaldien esparruan, abenduaren 4an (astelehena), Iñigo Urkullu lehendakariak hitzaldi bat emango du Guggenheim Museoan, "Euskal autogobernuaren 40 urte. Etorkizunari begira" izenekoa.



Iparragirre argitaletxea Bilbao Metropoli-30 Elkartearen bazkide fundatzailea da hasieratik.

ANDREkintzailea programa

Bilbao Metropoli-30 Elkarteak emakumezko enpresariei zuzendutako ANDREkintzailea programaren koordinazio-lanetan jarraitzen du, emakumeek zuzendutako enpresak indartzen laguntzeko helburuz.

Programa Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak antolatzen du, eta emakumeek zuzendutako enpresak indartzen laguntzeko helburua duten emakumezko enpresariei zuzenduta dago.



Trebetasunen programa / TALENTIA

Tailerrak egiten jarraitzen dute Deustuko Unibertsitateko, UPV/EHUko eta Mondragon Unibertsitateko ikasleekin, Bizkaiko profesionaltasunerako trebetasunen programaren esparruan. Programa hori bizkaia:talent-ek zuzentzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak sustatutako erakundeak, eta Bilbao Metropoli-30 Elkarteak koordinatzen du. Halaber, elkargo profesionalen laguntza ere badu.

prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

-“En Euskadi solo tenemos un recurso: las personas”. Deia, 25-11-2017.

- Ferran Adrià: «A Bilbao le han tocado los Juegos Olímpicos de la gastronomía». El Correo, 24-11-2017.

- Bucaramanga elige Bilbao como modelo de transformación. Deia, 23-11-2017.

- Aburto, con delegados de catorce países latinos. Deia, 17-11-2017.

- Ciudad del Cabo se fija en Bilbao a través de la UE. Deia, 16-11-2017.

- Bilbao y Ciudad del Cabo intensifican su colaboración en materia de desarrollo urbano sostenible. Europa Press, 15-11-2017.

- “Ya no competimos con infraestructuras, sino con valores”. Periódico Bilbao, 01-11-2017.

- Actívate por el medio ambiente. Periódico Bilbao, 01-10-2017.

- Zaragoza, Barcelona, Bilbao y México debaten sobre el futuro de las ciudades. El Periódico de Aragón, 29-09-2017.

- Zaragoza, Barcelona, Bilbao y México debaten sobre el futuro de las ciudades. Finanzas.com, 29-09-2017.

- Pittsburgh se interesa por la transformación de Bilbao. Deia, 20-09-2017

- Una delegación de Pittsburg visita Bilbao para conocer su regeneración. Deia, 19-09-2017.

- Una delegación de Pittsburgh (EE.UU) llega a Bilbao para conocer el proceso de transformación de la ciudad. Europa Press, 19-09-2017.

- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la ‘mejor ciudad europea’. El Correo, 06-09-2017.

- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la ‘mejor ciudad europea’. El Correo, 06-09-2017.

- Bilbao es una de las finalistas a Mejor Ciudad Europea 2018. Deia, 06-09-2017.



www.bm30.es/prensa

AZAROAK 2

ANDREkintzailea programa: Koherentea da gure estrategia digitala? Entzunaldi aktiboa online III. BEAZ.

AZAROAK 6

Immigrazioko Tokiko Kontseiluaren Batzorde Exekutiboa. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 8

Jeongseon Urban Revitalization Support Centeraren ordezkaria (Hego Korea) bisita. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 9

ANDREkintzailea programa: ETE-entzako komunikabide sozialak I. BEAZ.

AZAROAK 10

CVIII. Bilbao Metropoli-30 Topaketak. Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 14

Instituzioen ekitaldia Inguerdaren 25. urteurrena dela-eta. Barakaldo Antzokia.

AZAROAK 15-17

World Cities. Bilbao.

AZAROAK 15-16-22

TALENTIA/Trebetasunak. Emozio-adimenari buruzko tailerrak. UD, UPV/EHU y MU.

AZAROAK 16

ANDREkintzailea programa: ETE-entzako komunikabide sozialak II. BEAZ.

Hego Koreako Lurralde, Azpiegitura eta Garraio Ministerioaren ordezkaria. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 17

CVIII Encuentro BM30 Topaketak. Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 21

TALENTIA/Trebetasunak. Bileren eraginkortasunari buruzko tailerra. UD.

Bucaramangako (Kolonbia) ordezkaria. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

Hego Moraviako ordezkaria. Parke Teknologikoa.

AZAROAK 22

Immigrazioko Tokiko Kontseiluaren Osoko Bilkura. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

Berdintasunari buruzko lan-jardunaldia. Euskadiko Artixibo Historikoa.

AZAROAK 23

ANDREkintzailea programa: Nola bidali marketineko e-posta spamik egin gabe. BEAZ.

Bilboko Euskararen Aholku Batzordearen bilera. Bilboko Udala.

AZAROAK 27-28

Eskualdeen Munduko Foroa. Europa Jauregia (Gasteiz).

AZAROAK 28/30

ANDREkintzailea programa: B2B marketina / Eraiki zure harreman profesionalen sarea Internetez/Social Selling. BEAZ.

AZAROAK 30

BasquePRO Elkargoak-en networkinga. Bizkaia Jauregiko Abokatuen Bazkun Ohoretsua.

IKERFEL azterketaren emaitzen aurkezpena.

Uniport Bilbao/Portu Erkidegoaren batzar orokorra.

ABENDUAK 1

BBAG - Industria turistikoaren sustapena. BEAZ.

ABENDUAK 4

Hego Korearen bisita. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

ABENDUAK 12

ANDREkintzailea programa: Erabaki iraunkorrak hartzea bideratutako datuen azterketa I. BEAZ.

ABENDUAK 12-13

TALENTIA/Trebetasunak. Trebetasun teknologikoei buruzko tailerra. UD-UPV/EHU - MU.

ABENDUAK 13

TALENTIA/Trebetasunak. Talde-lanari buruzko tailerra. UD-UPV/EHU.

ABENDUAK 14

ANDREkintzailea programa: Erabaki iraunkorrak hartzea bideratutako datuen azterketa II. BEAZ.

Jornada DEIA 40urte. Guggenheim Museoa.

ABENDUAK 20

BBAG Global. Bizkaiko Foru Aldundia.

Anseong udalerriaren (Hego Korea) bisita. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano

Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarteak

Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.eus>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA